

## BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

773

*EBAZPENA, 2014ko otsailaren 12koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinen bidez luzatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko enplegatuen prestakuntza finantzatza bideratutako laguntzen eskabideak aurkezteko epea.*

2014ko urtarrilaren 27an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian honako hauek argitaratu ziren: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko enplegatuen prestakuntza finantzatza bideratutako laguntzen deialdia egiten duen ebazpena; eta bestetik, beraren eranskina, deialdia arautuko duten oinarriak ezartzen duena.

Seigarren oinarrian, eskabideak aurkezteko epea 2014ko martxoaren 3an amaituko dela aipatzen da.

Deialdia sasoi honetan argitaratzeak eragin ditzakeen arazoak aztertu eta gero, ikusi dugu hainbat kasutan epea ez dela nahikoa izango behar bezalako prestakuntza-plan bat aurkezteko.

Horregatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Eskabideak aurkezteko epea luzatzea; beraz, epea 2014ko apirilaren 11n amaituko da, 24:00etan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 12a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,  
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.